



GEHIEN EGITEN DIREN GALDERAK.

1. Comenius edo Grundtvig elkarte bat sortu nahi dut baina ez dut kide europarririk. Nola topatu ahal ditut?

Prozedura batzuk daude:

- HARREMAN PERTSONALAK: aldez aurreko jarduera batetik sortu direnak.
- <http://partbase.eupro.se> DATU-BASEA KONTSULTATZEA. Datu-base honetan harremanetan jartzeko kide bat aurki daiteke edo, bestela, gure ikastetxearen datuak jarri ahal ditugu, landu nahi dugun proiektu motarekin, kide europar bat geroago jar dadin gurekin harremanetan.
- KONTSULTA : <http://www.globalgateway.org.uk/>
- "HARREMANETARAKO MINTEGIAK " atala gure web orrian KONTSULTATU (bilerak Europako herrialde desberdinetan proiektu batean parte hartzeko kideak aurkitzeko). Berriztapen Zerbitzuari plaza eskatzen dio, ikastetxean hasi nahi duzuen elkartearen ezaugarrietara gehien egokitzen den proiektuan parte hartzeko. Ikastetxe bakoitzeko pertsona batek hartu ahal du bakarrik parte, Madrilgo OAPEEK (Sokrates Agentzia ohia) plaza dagoela baieztatzen badigu.
- Ikastetxearen eta egin nahi den proiektu motaren datuak OAPEEra (Madrilgo Sokrates Agentzia ohia) bidali (nahi izanez gero Berriztapen Zerbitzuaren bidez), iritsi zaizkien proiektuetan parte hartzeko interesa duen kide europarren bat eman ahal dizueten ala ez ikus dezaten.



Edonola ere, komeni da kideak aurreko ikasturtean, apirilean edo maiatzean adibidez, bilatzen hastea, abenduan argitara ematen den deialdian elkarte bat eskatzeko.

- Hezkuntza Sailaren Programa Europarren buletinean kontsultatu ahal da, "kideak bilatzea " atalean, deialdiaren aurreko aldian. Buletina Internet-en kontsulta daiteke:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dib9/es_2040/b9_c.html

2. Zer esan nahi du formularioak ON LINEren bidez aurkeztu behar direla esateak?

Haien edukia idazten ari denean Internet-era konektatuta egon behar dela, word formatuan edo testuak tratatzeko beste edozein metodo erabiltzean gertatzen denaren kontra.

3. Programaren jarduera desberdinetan parte hartzeko eskaera "on line "ren bidez egiten bada, inprimaturiko formularioa ere aurkeztu behar al dut?

Bai, noski. Inprimaturiko formularioa, jatorrizko ikastetxearen sinadura eta zigiluarekin eta deialdiak eskatzen duen adina kopiarekin, Berriztapen Zerbitzuari bidali behar zaio, nazio mailako deialdiaren eranskinean eskatzen den gainontzeko dokumentazioarekin batera.

4. Zein hizkuntzatan idatzi behar dira eskaeraren formularioak?
Gaztelaniaz edo elkartearen lan-hizkuntzaz baina, betiere, Europako Batasuneko hizkuntza ofizial batek izan behar du.

5. Zenbat denbora lehenago eskatu behar da prestatze-bisita bat?

Gutxi gorabehera, egin baino hilabete lehenago. Eskaera "on line "ren bidez egin behar da eta Pedagogi Berritzatzeko Zerbitzuari bidali behar zaio. Geroago, memoria labur bat egin behar da.



6. **Etengabeko Ikaskuntzako Programaren jarduera batean parte hartzen duen ikastetxe publiko bateko edozein irakaslek ordezkorik eska al dezake, elkarteak planifikatutako mugikortasun-jardueren barruan egun batzuetan herrialde europar batera joaten denean?**

Bai. Ikastetxeko zuzendaritzak egin behar du horretarako gestioa eta fax bat, hilabete bat lehenago gutxienez, bidali beharko dio Pedagogi Berritzatzeko Zerbitzuari (945 018465), joango den/diren pertsona/pertsonak, bidaiaren arrazoa eta egun kopurua, baita irakasgaiak eta ematen duen hezkuntza-maila ere, adieraziz.

Proiektuari buruzko bilerak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxetan gertatzen badira ez da ordezkapenik izango.

Bakarrik bi pertsonaren ordezkapen egiten dira, ikastetxe eta elkartearen bilera bakoitzeko, eta, prestatze-bisita bat baldin bada, pertsona 1 ikastetxeko.

7. **Comenius edo Grundtvig ikastaro bat eskatu dut, etengabeko prestakuntzaren barruan. Etengabeko Ikaskuntzako Programak ikastaroaren gastu guztiak sartzan al ditu?**

Ez. Etengabeko Ikaskuntzako Programak dirulaguntza bat ematen du, pertsona edo ikastetxe onuradunen kostu osoaren % 50etik % 75era bitartekoa dena.

Aukeratutako pertsonen zerrenda Hezkuntzaren web orrian emango da argitara eta, geroago, haietako bakoitzak posta elektronikoaren bidez finantza-hitzarmen bat jasoko du, emandako dirulaguntza, ordainketak egingo diren baldintzak eta prestakuntza-jarduera bukatu ondoren bete behar diren justifikazio, memoria eta txostenak jakinaraziko dizkiona. Horregatik, OSO INPORTANTEA da normalean irakurtzen den posta elektroniko bat eskaeraren formularioan idaztea. Finantza-hitzarmena itzuli beharko du, baldintzak onartzen dituela adieraziz.

8. **Euskal Autonomia Erkidegoan Etengabeko Ikaskuntzako Programaren jarduera deszentralizatu baten edozein pertsona edo ikastetxe onuradunak, nora jo behar du zalantzarik izanez gero, Madrilgo OAPEEra (Sokrates Agentzia Nazional ohia) edo Pedagogi Berritzatzeko Zerbitzuko Programa Europarren Arduradunarengana?**

Lehenik eta behin, deialdi nazional bera eta izangaien gida, gure web orrian argitara eman direnak, kontsultatu behar dira.



Elkartek jarduerak egiten dituen aldi guztian gorde behar dira agiri hauek, memoriak aurkeztu arte, beraietan jasotzen baita prozedurei buruzko informazio guztia.

Gainera, Pedagogi Berritzatzeko Zerbitzuko Programa Europarren arduradunak erantzuna emango die pertsona edo ikastetxe onuradunen zalantzei.

7. Nora bidali behar da dokumentazioa?

Bi toki horietako batera bidali beharko da:

1. Pedagogi Berritzatzeko Zerbitzuari (Programa Europarrak)

-Deialdia irekita dagoen bitartean bete beharko diren formulario guztiak:

-Elkartearen jarduerak bukatu ondoren: memoria pedagogikoa, egindako azken produktuen adibideak (ikastetxeen kasuan) eta gastuak justifikatzeko agirien kopia.

2. Agentzia Nazionalari:

-Sinatutako posta elektronikoaren bidez jasotzen den finantza-hitzarmena.

-Elkartearen jarduerak bukatu ondoren, gastuak justifikatzeko agiriaren jatorrizkoa, memoria eta txosten estatistikoa, hitzarmenean agertzen den legez, baita azken produktuen adibideak ere.

9. Proiektu bat baino gehiago eduki al daiteke ikastetxe bakoitzeko?

Zentzu honetan, arreta jarri behar zaio urteroko deialdiak esaten duenari. Aurtengoak ezin direla bi Comenius edo Grundtvig elkarte eskatu adierazten du, ikastetxea oso handia denean, irakasle desberdinek ardurak beren gain hartzen dituztenean eta ikasle talde desberdinek parte hartzen dutenean izan ezik.

Hala ere, Comenius elkarte bat eta Comenius laguntzaile bat aldi berean eskatu ahal dira.

10. Noiz jasotzen da dirua?

Dirua jasotzeko, ezinbestekoa da Agentzia Nazionalari itzultzea sinatutako finantza-hitzarmena, bai elkarte baten, bai prestakuntza-jarduera bat eskatzen duen pertsona baten kasuan. Epe motz batean Agentziak emandako diruaren % 80 ordainduko du eta gastuak justifikatzeko eta berrikusteko agiriak aurkeztu ondoren gainontzeko % 20.



Banakako laguntzen kasuan, onuradunak prestakuntza-jarduerara joan behar izatea eta diruaren % 80 oraindik jaso ez izana gerta daiteke. Zirkunstantzia horietan, saihesten saiatzen direnak, pertsonak aurreratu beharko luke geroago kobratuko duen dirua.

11. Zein agiritan onartzen da euskaraz idaztea?

Bakarrik memoriak eta azken produktuak aurkezteko orduan, kideen artean horrela erabaki baldin bada.